

EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUAK HIZKUNTZA EREDUAZ EGINDAKO HAUSNARKETAK

Euskadiko Eskola Kontseilua sortu zenetik hizkuntza ereduaz eta irakaslegoaren euskaldutzeaz gogoetak egin ditu. Batez ere, gai honetaz egin dituen ekarpenak Hezkuntzaren egoerari buruzko txostenetan aurkitzen ditugu.

Hona hemen Euskadiko Eskola Kontseiluak egin dituen balorazioak:

- **2002-04 Txostena**

Kapitulu honetan, beste gai bat jorratu dugu, labur bada ere, irakaskuntza euskalduntzeko prozesua alegia, hiru hizkuntzako testuinguruan, euskaratik eta gaztelaniatik abiatu. Irakaskuntzaren, prestakuntzaren eta emaitzen inguruko problematikari, txosten honetako beste puntu batean helduko diogu.

Plangintza beharrei dagokienez, hiru hizkuntza ereduaz bestelako modelo alternatibo baten bideragarritasunaren mende dago guztia. Egungo egoeran, egiaztatu ahal izan da gaur arte burutu den mailaz mailako eraldatze prozesuan geldotze bat gertatu dela, hasierako mailetan igartzen den bezala.

A eredu ezgaitzat jotzen da harremanak euskaraz garatzea ahalbidetuko duten komunikazio gaitasunak hartzeko, eta askoz hedatuagoa da ikastetxe pribatuetan. Ikastetxe publikoetan, eredu honetako ikasgeletan faktore batzuk metatzen dira – etorkinen eragina, berariazko hezkuntza premiak dituzten ikasleen pilaketa, eskola porrotaren indize handia, honelako ikasleen gizarteratze eskasa...- eta ezin egina bihurtzen dute hezkuntza sistema osorako itundutako euskara maila eskuratzea, baita gainerako funtsezko hezkuntza gaitasun guztiak ere, eta askotan, gutxiengo ikasgela hauek gizarate eta eskola bazterketako toki bihurtzen dira, hezkuntza cunea baino gehiago asistentziatzko gune, alegia, eta honen eraginez, irakaskuntza pribatuaren aldean irakaskuntza publikoak duen ospea gehiago galtzen da.

Iragan 2003-04 ikasturtean zehar, bereziki, Hezkuntza Sailak ekimen bat proiektatu zuen, hala erabakitzen duten ikastetxeetan A eredu indartzeko, eta xede horretarako euskaraz irakatsi behar zen instrumentala ez den arloren bat. Ez dakigu zein diren proiektu honen hedadura eta lehenengo emaitzak.

Lanbide Heziketaren eremuan, euskara gainerako etapetan baino askoz ere gutxiago sartuta dago, are unibertsitateko irakaskuntzan baino askoz gutxiago ere. Hezkuntza etapa honen ezaugarri bereziak direla eta, arduradunek apustu argia egin behar lukete euskara sartu eta sendotzeko diskriminazio positiboa erabiliz LPZak egiterakoan eta taldeak taxutzerakoan, euskarazko materialen lanketa sustatuz, LHko irakasleak euskaraz prestatuz, eta beste neurri batzuen bidez, hezkuntza eremutik at lan eremuetan eta bereziki LHko ikasleek Lantokiko Prestakuntza modulua egin behar duten enpresetan euskararen hedapena handiagoa egiten laguntzeko.

Beste ikuspuntu batetik, eleaniztasunaren ikuspegitik, gaztelaniaz lortu beharreko gaitasun maila euskaraz lortu beharrekoa bezain garrantzitsua da. Euskararen erabilera nagusi den eskualdeetan, gaztelania indartzea lehentasunezko helburua izan liteke.

Lau urte du jadanik azken hogeitau urteetan indarrean egon den hiru hizkuntza ereduen sistema gainditzeko edo bertan behera uzteko debatea zabaldu zela. Zabalik dago, baina ez du aurrera egiten behar bezala. Nolanahi den ere, gaur egun, ereduen sistema ordezkatzeko, gizartean onarpen gehien duen alternatiba, eredu sistema desagertzea bera da, eta haren ordeztze bakoitzak berea izango lukeen hizkuntza proiektu bat egon behar litzateke, eta egoera soziologikoa eta ikasleen hizkuntza baliabideak ezagututa, proiektu honek lehentasunak zehaztuko lituzke finkatutako helburuak erdiesteko, betiere Hezkuntza Administrazioak etapa eta ziklo bakoitzerako hiru hizkuntzetan ezarritako helburuak minimotzat aintzatetsirik.

Ez da erraza modelo honek aurrera egitea teknikoki oso korapilatsua delako, alde linguistikotik zein lanpostu zerrenden antolamenduaren aldetik. Aldi berean, adostasun handia eskatuko luke indar politiko eta sozialen artean. Dena dela, ezin gara oztopoen aurrean geldirik geratu. Helmuga eleaniztun baterantz ibili nahi duen modelo hau hasiera batean ikastetxe kopuru mugatu batean esperimendu behar da. Esperimenduzko aldiaren ostean, eta dagokion ebaluazioa eginda, baizik ezin egon gaitezke modeloa orokortzeko moduan.

Eskola arrakastari eta hizkuntza tratamenduei dagokienez gizartean hain labaina eta aldi berean hil edo bizikoa den gai honetan, Kontseiluak berriz adierazi nahi du hizkuntzak tratamendu integratu batetik ikasi behar direla eta metodologiari dagokionez ikuspegi komunikatiboa hobetsi behar dela ildo formalaren gainetik. Euskararen kasuan, bereziki, eskolaz kanpoko komunikazio eremuak zaindu behar dira, hizkuntza hau erabiltzea ez dadin geratu, haren kalterako, ikasketa erabilerei loturik, beste ikasketa ataza bat balitz bezala, eragin komunikatiborik gabe egiazko bizitzan.

Azkenik, gure iritzian, euskalduntzearen zama gizarte osoaren ahalegin kolektiboa izan behar du, eta ez da jarri behar erantzukizun guztia irakaskuntza munduaren bizkarrean. Kontseiluaren aburuz, gure herrian benetako elebitasuna erdiesteko irakaskuntzan egin den ahalegin eskerga, oraindik igartzen diren hutsuneak gorabehera, ez da gizarteko beste eremu batzuetan egiten diren ahaleginen parekoa. Honek, berriki egin diren inkesta soziolinguistikoetan islatutako errealitatea argitzen du, hau da, azken 10 urteetan asko handitu da euskaldunen kopurua –ehun mila hiztunetik gora; gainera, 25 urtetik beherako bi gaztetik bat euskalduna da-, eta honek eragin handia izan du, zalantzarik gabe, hezkuntza sisteman. Alabaina, gizartean euskararen erabilera ia ez du igoerarik izan aldi berean.

- **2000-02 Txostena**

Hezkuntza sistemaren plangintza: balorazioak eta proposamenak

- ✓ Hizkuntza ereduen gaiari dagokionez, eskariaren bilakaerak euskalduntze trinkoko ereduera jotzen segitzen du, ageri denez, eta joera hau bi sareetako ikastetxeetan eta hiru herrialdeetan islatzen da. Bilakaera honen erritmoen

bizitasuna handiagoa da sare publikoan, eta honetan A ereduaren hondarra oso txikia da dagoeneko nahitaezko eskolatzeko mailetan –%3 eta %8 bitartekoa Haur Hezkuntzatik DBHra bitartean–, sare pribatuan, berriz, korrante nagusia A eredutik B eredurantz doa, Gipuzkoan izan ezik non aldaketa Btik Drakoa den.

- ✓ Egonkortasun handia dago gurasoek nahitaezko eskolatzeko hiru etapetan egiten dituzten Hizkuntza ereduetauko aukeretan: etapa batetik bestera ereduaren banaketan agertzen diren desberdintasun kuantitatiboak ez dira aukera aldaketa bategatik gertatzen, horren zioa besterik da, lehen aukeraketak zein une historikotan gertatzen diren, alegia. Aldaketa kualitatiboa leku bakar batean aurkitzen dugu, hau da, DBHtik Batxilergoetara iragaiterakoan, izan ere, B ereduaren desagertzen da eta aurretiaz bertan matrikulatuta ibili diren ikasle gehientsuek A eredura jotzen dute, bereziki, Lanbide Heziketara iragaiterakoan. Batxilergoari dagokionez, aldaketa honek poliki-poliki jaisteko joera du, eta D ereduko matrikularen hazkundearen esanguratsua da.
- ✓ Lanbide Heziketa aparteko kasua da hezkuntza sistemaren mailaz mailako euskalduntze prozesuan, sareak sare eta zikloak ziklo. Matrikularen hobekuntza orokorretik jasotako arrakasta batxilergoaren aukera alternatiboaren aurrean eta, geroago, unibertsitateko ikasketen osagarri edo alternatiba gisa, batetik, ematen den prestakuntzaren kalitatea, orok aitortua, bestetik, eta lanerako sarbide tasa handiarekin batera ez da etorri irakaskuntza hauetan euskalduntze eskaintzaren bilakaera garrantzitsurik.

Hezkuntzaren berrikuntza: programak eta proiektuak.

- ✓ Kontseiluaren iritzian ikastetxeek oso era garrantzitsuan parte hartzen dute *Hizkuntza Normalkuntzako Programan (HNP)*, bereziki publikoek eta Bigarren Hezkuntzakoek, eta are gehiago ikastolek, eta oro har D ereduko ikastetxeek. Atentzioa ematen du eta suspergarria da, bestetik, nola ikaskuntzak A ereduaren duten ia 100 ikastetxetan euskararen erabilera sustatzeko proiektu batean konprometiturik dauden.
- ✓ Kontseiluak nahi du azterlan bat egin dadin ikastetxeetako hizkuntza normalkuntzako programak izan dituen emaitzei buruz, tartekoak diren eragile guztiek parte hartuta: irakasleak eta ikastetxeetako Normalkuntza Batzordeetako beste kide batzuk, Berritzeguneetako proiektu aholkulariak, Saileko Euskara Zerbitzua, Hezkuntzako Ikuskaritza eta Pedagogia Berrikuntza. Azterlan honen konklusioek programa sendotzeko edo birmoldatzeko oinarri gisa balio behar lukete.
- ✓ *Ingelesaren sarrera goiztiarreko programari* dagokionean, Eleanitz programan parte hartutako ikastoletan 3 urteko mailan hasi zen eta geroago, 4 urtekoan ikastetxe publikoetan, hartara, nabarmentzekoa da hauetan erdietsi duen hedadura, %80 ingurukoa, eta horrek eskari berrietara moldatzeko ikastetxeek duten gaitasuna frogatzen du. Garai batean, eskolan erabiltzeko hirugarren hizkuntza bat sartzea komeni ote zen mahai gainean jarri zen, izan ere, ikastetxeetako eta beren inguruneetako hizkuntza ereduak eta praktikak askotarikoak dira eta, debate hau irekita dago gaur egun ere. Ebaluazioak egiteko uneak itxaron beharko du oraindik, nolahi den ere, ez da atzeman ikaskuntza aurreratu hauekiko moldatu ezinik edo errefusik.
- ✓ Esperientzia honetako irakasle espezialista berrien lan baldintzak zaindu beharreko kontua dira. Irakasle hauek kasu askotan gaitu dituen prestakuntza sistema biziki

positiboa da, bai eta lan taldeen gaineko aholkularitza eta taxutuz doazen pedagogi materialak ere. Horrenbestez, irakasle hauen lan baldintzak zaindu beharko dira, izan ere, berrikuntzaren ikuspegitik, punta-puntakoak baitira. Ez zaie gainkargarik ezarri behar talde gehiegirekin, eta behar adina denbora bermatu behar zaie eskolarik gabeko, berrikuntzarako prestatu behar horiei arreta eman ahal izateko, ikasleak behar bezala ezagutzeko eta parte hartzen duten ziklo eta etapetako tutoreekiko koordinazio lanerako. Ekidin beharko genuke, halaber, kolektibo profesional honen parte batek esperientzia honi utz diezaion lan gainkargarengatik eta laguntza ezarengatik.

- **1994-2000 txostena**

- 1) Euskalduntze prozesua aurrera doa, baina beharrezkoa da helburuak gaurkotzea eta horiek lortzeko bitartekoak proposatzea. Gizarteak eskolaren eskatzen dio ikasleek ikasketak euskaraz zein erdaraz egiteko adinako gaitasuna lortzea eta, aldi berean, atzerriko hizkuntza batean berme osoarekin komunikatzeko gaitasuna lortzea.

Hiru hizkuntza eredu desberdinetan eskolatzeari esker aurrera eraman da gizarteak eskatzen zuenaren eta lortzen ziren giza baliabideen araberrako euskalduntze prozesua. Garapen honek familiei nahi zuten ereduak aukeratzeko ahalmena eman die, erabakiak hartzeko erritmo desberdinei jarraituz. Oso inportantea izango litzateke oinarrizko helburu eta baldintza batzuk zehaztea, biztanleen artean nagusi den iritzia jasota, familia guztien legezko hizkuntza aukerei sarrera ematea eta ikastetxe guztietako hizkuntza proiektu desberdinen kalitatea bermatzea ahalbidetuko dutenak.

Euskalduntze prozesuan ebaluazioa azpimarratu behar da. Ikastetxe bakoitzaren egoera ezagutu behar da eta arazoak azaltzen diren tokian diagnostikatu eta erantzuna ematea. Ez dago ezin hobea den eredurik. Eredu bakoitzean oso lorpen desberdinak gerta daitezke. Horrengatik oso inportantea da ikastetxeen lorpenen ebaluazio xehetua egitea ikastetxeek eta euskal hezkuntza sistemak aurreikusita dituzten helburuak lortzeko.

- **1990-01 eta 1991-02 Txostena**

Hasieran euskal hezkuntza-sistemaren helburutzat proposaturiko hizkuntza helburua kontuan izanda, kontseilu honek gogoeta egiten du sare pribatuko sare ezberdinetan eskolaketaren eta egoerak eskaintzen dituen datuei buruz eta, zehazki, B eta D ereduak bertan duten presentzia urriari buruz.

Pentsa litekeena da ikastetxe pribatuetan ez dagoela hezkuntza elebidunerako eskaririk, edo behintzat ez ikastetxe publikoetan bezain bizirik. Litekeena da, baita ere eskari hau, dagoenean, ikastolak bezalako ikastetxeetara desbideratzea berez. Pentsa liteke baita ere, Kontseilu honek sistemaren beste behar batzuei dagokionez sostengatu izan duen moduan, eskaria ez dela neutroa eta beronen atzean aztertu eta esplizitatu behar diren faktoreak daudela, hala nola, eskaintzaren prestigioa, eskaintza eskaria eragiteko erabiltzea berez sor dadin itxoin gabe, kanpaina instituzionalak, sozialak... erabiltzea.

Badirudi guraso kopuru handi samarrak, beren seme-alaben eskolaketa erabakitzean, lehenbizi hezkuntza-sarea aukeratzen dutela eta ondoren beti, eta ahalbidearen arabera, ereduaren arteko aukera egiten dutela.

Sare publikoa eredu elebidunetan eskolatzeko eskariari erantzuteko egiten ari den ahaleginak gizarte-aintzatespen handiagoa eta edonola ere Kontseilu honen balorazio positiboa meresi duela dirudi.

Hizkuntza normalizazioa lortzeko hezkuntza-sisteman egindako lana kuantitatiboki ezohizko handitasunekoa da eta agian, beste hezkuntza-alderdi batzuetan bezala, orain hobekuntza kualitatibora bideratu behar dira ahaleginak. Horretarako, lehenbizi, ibilitako bideari buruzko gogoeta egin beharra dago, eta oraingoak baino hobeto diseinaturiko eta helburuei, bitartekoei, prozedurei eta, azken batean, emaitzei dagokionez aurrera egiteko ezagutu beharra daukagun guztia barnesartzen duten mekanismoak abiarazi beharra.

Lan hau garrantzi handikoa da hezkuntza-erreformak eta Euskal Eskola Publikoaren Legeak markaturiko etapa berriari aurre egiteko.

Hizkuntza normalizazioko politikek aurrera egiteko beharrezko duten gogoeta-ildo honetan, garrantzitsua da hezkuntza elebidunak dakartzan onura edo kalteei buruz abstraktuan hitz egiteari uztea, efektu positiboak ondoen bermatzen dituzten zirkunstantzietara begira jartzeko eta aldagai esanguratsu gustiak (haurren gaitasunak, populazioaren maila sozioekonomikoa, testuinguru konkretu batean hizkuntza bien artean dagoen erlazio soziala, haurren inguruak dauka hizkuntza garapen maila...) kontuan izango dituen irakaskuntza elebidunaren diseinu eta baldintzei buruzko ikerketa eta gogoeta-ildo serio bat bultzatzeko, horretara prozesuak orientatu eta hobetzeko behar den informazio guztia eduki dezagun.

Derrigorrezko eskolaketan zehar hizkuntza bietako lorpenak berdintsuak ez direla begibistakoa izanik, Kontseilu honek erabilitako estrategiak berraztertu behar direla dio berriro ere, A ereduaren kasuan hizkuntza modernoaren ikasketaren planteamenduan egindako errakuntzen translazioa suposatu izan baitute, hauen irakaskuntza berrazterketa egoeraren dagoelarik. Estrategien berrazterketa honek Jokaera Plan premiatsu batean gauzatu behar du, zeinak beharrezko aldarazpenak planteatu eta bultzatu behar dituen baliabide gizatar eta materiales, metodoei, Nolega planari dagozkion laguntzako jokaerei eta abarrei buruz, A ereduko eta gainontzeko ereduaren hizkuntza helburuen erdiespenean aurrera egin ahal izateko.

Badirudi bidea zabaltzen ari dela komunikazio-xedez ikasten den hizkuntza ezagutzen ez den informazioaren elkartruckerako erabili beharra dagoen konbentzimendua, eta, beraz beste mota bateko ikasketen testuinguruan izan ezik, hizkuntza benetan ikasterik ez dagoen konbentzimendua.

A ereduari buruz sektore ezberdinetatik formulatu diren aldarazpen-proposamenek kontuan izan behar dute euskararen erabileraren perspektiba berri hau, hau da, euskara beste arlo batzuetako ezagupenen eramale moduan erabiltzea. Ildo beretik, inportantea litzateke B ereduaren estrategia berriak planteatzea, batez ere euskararen erabilera gizartean urriagoa den testuinguruetan.

Administrazioak gogoeta bultzatu eta hau egiteko modurik egokienaren bilaketan orientatu behar du, eta baita irakaslegoa fokaera berri honetara moldatzeko ekimenei euskarria eman, irakasleko/ikasleen ratio egokiak eskaini, didaktika-materiale eta orientabideak eta egindako lanaren segida segurtartu, irakasle plantilak egonkorragotuz. Bereziki inportantea da programazio gero eta koherenteagoa ezartzea ikastetxe bakoitzean, etapa, ziklo bakoitzerako jarritako helburuen lorpena bermatzeko.

Azpimarratu beharra dago euskol gizarteak, dudarik gabe hezkuntzaren etorkizunean eta, beraz, euskararen irakaskuntzan eragina izango duen irakaskuntzaren erreformari hasiera eman diola: eskola giltza izan daiteke irakaskuntza eta hein handi batean, gizarte bera berriztatzeko.

Erreforma honetan, aztertzen ari garen eremuan zerikusi handia duten bi alderdi azpimarratzen ditugu:

1.- Hezkuntza-sistemaren ordenamendu berria, zeinak derrigorrezko irakaskuntza luzatu eta derrigorrezko bigarren etapa diseinatzeko duen, hizkuntza gaitasunak finkatzeko, arlo honetan ikastetxeek plangintza egiteko beharrezko duten denbora ere luzatuz, helburutzat hartuta derrigorrezko etapa hau bukatzean ikaslea geroagoko ikasketak hizkuntza batz edo besteaz burutzeko aukera egiteko moduan prestatu egotea. Hala ere, kontuan izanda datozen hiruzpalau urteetan maila hauetan ez dela sistema aldatuko eta ikasturteotan B ereduak ikasle kopuru handia sartuko dela IEtan, Hezkuntza Administrazioak aztertu egin behar du nola egin ahal izango dituzten egungo irakaskuntza ertainetako lehen kursoak, formula malguak eratuz. Bide bat baino gehiago dago aztertu beharrekoa balibide erabilgarrien eta dagoen eskariaren ikusguneak onargarria datekeen formula bat aurkitzeko.

2.- Haur Hezkuntza eta Lehen Irakaskuntzako Curriculum-diseinu berriek planteamendu berria suposatzen dute hizkuntza arloari dagokionez, curriculum bakarra formulatzen baitute gaztelania eta euskarako. Hizkuntza arloaren planteamendu honek H1, H2, eta H3-ren irakaskuntza/ikasketa perspectiva integratzailetik hartzen ditu euron ikasketa efektiboa izan dadin, irakaskuntza presupostu metodologiko berdintsuetan oinarritzen delako.

Eskola Kontseilu honek berriz ere azpimarratzen du ahalegin handia egin beharra dagoela hizkuntza irakaskuntzako metodoak inguruabar ezberdinetara moldatzeko, horretara hiru ereduetan proposaturiko helburuak benetan erdiesteko.

Gogoeta eta balorazio mordo honetatik ondoko PROPOSAMENAK jalgitzen dira:

- Euskarari euskarria emateko jokaerak berrikuntzari laguntzeko jardueren barruan sartu behar dira.
- Ahalegin handia egin behar da hiru ereduetan hizkuntza ereduetan hizkuntza irakaskuntzako metodoak hobetu eta inguruabar ezberdinetara moldatzeko. Jeneralean, gure hezkuntza-sistema ez da efikazia handikoa hizkuntza irakaskuntzan.
- Ikastetxeek erantzukizunez hartu behar dituzte kolektibitate bakoitzari komenien zaizkion euskalduntzeko prozesu eta erritmoei buruzko erabakiak.

- Sailak, aldagai esanguratsu guztiak kontuan izango dituzten hezkuntza elebidun eta eleaniztuneko ikerketak eta esperientzia konkretuak sustatu behar ditu.
- Jaurlaritzaren erantzukizuna da, eta bereziki Hizkuntza Politikako Idazkaritzarena, hezkuntza sistema ez-unibertsitariaren erantzunaren aldean aurrerapen eskasa izan dute sanitatea, merkatalgoa, komunikabideak, unibertsitatea, industria...bezalako arloetan erantzun social hobeak bultzatzea. Hizkuntza normalizazioaren erantzukizuna ez da hezkuntzarena bakarrik eta ez litzateke on gizarteak eskolari solilik dagokion helburutzat jotzea.
- Hezkuntza Administrazioak proposaturiko curriculum-diseinuetan hartutako hizkuntza tratamenduak ahalegin handia eskatzen du gure hezkuntza-sistema ezarritako printzipioetara egokitzeko: aintzat hartu behar da Ikasketa-planak garatzeko eta Irakaslegoaren Prestakuntzarako Institutuan euskararen tratamendurako espezialisten zuzkidura gehitzeko komenigarritasuna.
- **89-90 Txostena**

X ereduak kendu beharra dago sare guztietatik, hizkuntza ofizialkide bi dituen Elkarteak irakaskuntza sistemak biak errepertatu eta bultzatu behar dituelako.

Aztertutako datuetatik ateratzen da sare bien artean portaera ezberdina dagoela: sare publikoa erabakiz erantzuten ari zaio euskalduntzeko erronkari, sare pribatuen prozesu hau nekez eta astiro doan bitartean, honetan esfortzu handiagoa beharko litzatekeelarik.

Ikusirik OHO bukatzean elebidun ereduetan eskolaturiko ikasle guztiek ez dutela hizkuntza bien ezagutza praktiko eta behar bezainbatekorik erdiesten, euskera berreskuratu eta duintzeak erabilutako bitartekoen lortutako emaitzen analisi egokia eskatzen du, eta, halaber, “ikaslegoari, derrigorrezko irakaskuntzako ikasketak bukatzean, hizkuntza ofizial bien behar bezain bateko ezagutza praktikoaren jabe izateko benetazko ahalbidea, baldintza berdinetan, berraztertu bideraturiko” aterabideak proposatzea (1982/10 Euskararen Erabilpena Normaltzeko Oinarrizko Legea, 17 art.).

Zentzu honetan garantzi handia du A lineako emaitzen analisiak. Ez da ulertzerreza astean lauzpabost ordu euskara ikasten eskolaro osoan zehar emanda, aitatu helburua ez erdieste. Onartezina da emaitza hain eznahikoak izatea ikaslearen aldetik batez ere egindako holako ahalegin batek, hau da: eskol-ihardueraren ia % 20a gai honi dedikatzeak. Mota honetako dedikazio batek, bilatzen den helburu hori erdiesteko behar diren neurri guztien laguntza eduki behar du.

Bestalde, egoki dela dirudi OHO egin duten ikasleei, euren hizkuntza-gaitasunei egokituko zaien eta etekin akademiko egokia, bereziki ordura arte euzkaraz ikasi eta dituzten asignaturetan, atera ahal izateko moduko modalitate elebidunean ikasketak egiteko aukera ematea.

Kontutan izanik, derrigorrezko irakaskuntza 16 urteraino luzatzeak sortuko duen egoera berria, aurrikuspenaz eta eraginkortasunaz jokatu beharra dago sortuko den eskari honi erantzun egokia emateko, eta orobat etorriko diren batxilergo eta lanbide-moduluetarako sortu beharreko irakaskuntza elebiduneko modalitateen arauketa berezia

aztertzeko, gaurreguneko OHOk B ereduetatik hur dauden IE-etako ikastetxe batzutean hasi diren esperientziekin jarraituz.

Irakaslegoaren euskalduntzearen prozesua

- **2002-04 Txostena**

IRALE programak EAeko ikastetxe mota guztietako milaka irakasleren hizkuntza gaikuntzan lagundu du modu erabakigarrian mende laurden batean zehar. Haren funtsezko betebeharra, irakasle erdaldun elebakarrak hiru urtean eskolak euskaraz emateko gaituta egon daitezen bidea ematea izan da.

Etapen artean eta, batez ere, hezkuntza sareen artean aldea dagoela, irakaskuntza elebiduna emateko irakasleen gaikuntza nabarmen handitzea lortu da. Aitortu beharra dago, beste alde batetik, zein ekarpen handia egin duten Hezkuntza sistemari begira beren euskalduntzea edo alfabetatzea dela eta altxor publikoari gasturik ekarri ez dioten profesional guztiek.

Eskaintzaren ikuspegitik, urteko liberazioa dakarten ikastaroetara "zero mailatik" (teknikoki U1) sartzeko aukera ikastetxe pribatuetera zabaldu da azken urtean, eta ikastetxe publikoetan aukera hau handitu egin da. Erabaki hau, U3 mailako (HE2 lortzeko prestakuntza) ikasketari kopurua gutxitzearekin batera, orientazio bat bide da gaur egun ikastetxeetan lanean diharduten irakasle guztien ikasteko ahalmena aprobetxatzeko, hizkuntza eskakizunetako probetako emaitza orokorrak bigarren maila batean utzita.

Aitzitik, gogoeta egin behar da beste elementu baten inguruan, alegia ea komenigarria ote den honelako ikastaroak adin gehieneko irakasleei eskaintzea. Lehen hizkuntza eskakizuna ateratzeko maila (U2) ikasten duten irakasleen adina batez beste hiru urte handiagoa da HE2 ateratzeko goi mailakoa baino, eta honek adierazten du hasierako adinaren aldea lau urtetik gorakoa dela, urte gutxi iraganda. Haien plazako hizkuntza eskakizunaren aldaketagatik premia handiagoz edo txikiagoz bultzatuta, irakasle beteranoago hauen ebaluazioaren emaitzak arreta bereziaz hausnartu beharko dugu, eta hezkuntza sisteman haien jarduera produktiboa atxikitzeo aukera emango dieten soluzio osagarriak mahaigaineratu beharko dira. Estatistikoki, adin egoera horretako irakasle bat euskalduntzeko kostuek ez bide dute justifikatzen interesdunen ahalegina ez eta Sailak duen aldeko jarrera ekonomikoa ere.

Deigarria bada ere, HE1 eta HE2 lortzeko IRALeren deialdi itxietan oso handia da gainditu gabekoen kopurua, batik bat adinean aurreratuak dauden irakasleen artean. Planifikazio egoki bat bideratu behar da hizkuntza eskakizunak lortzeko zailtasunak dituen sektore honen egoera hobetzeko, zeren adinean aurreratuak egonik euskaldundu beharra ikusten duten irakasleek sarritan egoera dramatikoak bizi baitituzte eta, hortaz, zaila egiten zaie ikaskuntza prozesua behar bezala aprobetxatzea eta erritmoei jarraitzea.

Funtsean, irakasleak euskaldundu beharra, gizarteak eskatzen duen hezkuntza elebidunaren ondorio ekidinezina da, eta hezkuntza sistemak erantzun egin behar dio eskari honi. Badakigu, ordea, hizkuntza bat irakasteko eta are hizkuntza horretan irakasteko ezinbestekoa dela irakasleek hizkuntza gaitasun egokia izatea bai euskaraz bai gaztelaniaz. Premia handiko kontua da ikasleen hizkuntza gaitasun maila hobetzea euskaraz eta xede horretarako irakasleek hobeki jakin eta erabili behar dute euskara.

Hezkuntza sistema euskalduntzearen azken helburua lortzeko ezinbestekoa da irakasleak euskalduntzea, bederen lagunarteko mailan molda daitezen, horrela euskara eskuarki erabiltzeko aukera emateko, gaztelaniaren erabilera baztertu gabe, hezkuntza eremu osoan. Hala ere, kontuan hartzen badugu gaur egun EAEko hezkuntza sisteman lanean diharduten irakasle funtzionarioetariko batzuek, beren adinagatik edo hizkuntza bat ikasteko gai ez direlako, ezin izango dutela helburu hori lortu, gure iritzian Hezkuntza Administrazioak bideak urratu behar ditu irakasle hauek zerbitzu ematen segitu ahal dezaten ikasleek eskatzen duten euskarazko irakaskuntza oztopatu gabe eta, aldi berean, beren esperientzia eta jakintzak erabilgarriak izando diren kokapen bat aurki dezaten.

Ikuspegi orokor batetik, Irale programaren finantzazio ahalegina nabarmen gutxitu da azken bost urteotan. Hezkuntza sistema euskalduntzeko gastuaren adierazle nagusia —hasierako hizkuntza gaitasunetik titulua lortu arte, eta gerora irakasleek euskaraz irakasteko duten gaitasuna hobetzea—kupoaren tamaina da, hau da, urtero Hezkuntza Sailak, erabil dezakeen aurrekontuaren arabera, edonolako ikastetxeetan irakaste lanetatik liberatu ahal izaten dituen irakasle eta bestelako profesionalen kopurua, eta honetatik ondorioztatzen da kontratatu beharko diren irakasleen edo bestelako ordezkopertsonalaren kopuru gehigarria.

Iraleren kupoa milatik gorakoa izan da 1996-97 eta 2001-02 ikasturteen artean, eta liberatutako irakasle kopururik handiena, 1.400 irakasle, 1999-2000 ikasturtean izan zen. Azken bi ikasturteetan 600 edo 700era jaitsi da. Ulibarri programako Hizkuntza Normalkuntzarako Proiektuak (HNP) bezalako tamaina handiko proiektuetan, euskararen erabilera zabaltzeko eta indartzeko partidak asko handitu ahal izan diren arren, hezkuntza sistema oro har euskalduntzeko finantzazioa nabarmen murriztu da.

Ezarririk aurrekontu mugen ondorioz, azken urteotan HE2 mailatik gorako ikastaroen eskaintza asko handitu bada ere, ezin zaio eskari guztiari erantzun liberaziorik gabeko ikastaro laburrei dagokienez, eta hiruhileko R ikastaroetan ere laurdenari baizik ez.

Halaber, ikastetxe pribatuetarako kupoko plazak pixkanaka-pixkanaka baina astiro gehitzea, gure iritzian, HE2 duten irakasleen beharrizan berrietatik urrun geratzen da, honelako ikastetxeen hizkuntza ereduaren eraldaketa erritmotik ondorioztatzen denez. Ildo honetatik, aurreko txostenean mahai gainean jartzen genuena berriro ere aipatu nahi dugu, hau da, hala nahi duten irakasle kontratatuei liberatzeko aukera eman behar zaie, bereziki eredu aldaketak ukitzen dituztenei, hots, beren lanpostuetan lanean segitzeko hizkuntza eskakizuna izan behar dutenei, ez dadin bete gabeko eskabiderik geldi, 2004-05 ikasturtearen aurretik gertatu zen bezala. Komenigarria litzateke erabaki hauek sare horretako hizkuntza premiei buruzko azterlan baten testuinguruan kokatzea, sare publikorako egindako Bostamar azterlanaren antzera.

Sare publikoko ordezkoen kolektiboari gagozkiola, aurreko 2000-2002 txostenean adierazitakoa errepikatuko dugu: euskalduntzeko aukera gehiago izan behar dituzte. Orduko txosten hartan esandakoak berdin balio du gaur egun ere: ez du neurri orokorra izan behar, baina sistemarako beren baliagarritasuna erakutsita, azken urteetan Lan Eskaintza Publikorik izan ez delako bertan era egonkorrean ezin sartu izan direnentzat balio du. Beraz, gomendagarria da IRALE zabaldu ahal izatea hizkuntza eskakizunetako dekretua indarrean sartu baino lehen ordezkoen zerrendetan sartu ziren bitarteko irakasleentzat edo, nahiz eta haren ondotik sartua izan, hiru urteko antzintasuna izanda, liberazioa izan lezakeen ikasturterako plaza dutenentzat, betiere, bestelako euskarazko ikastaroetan parte hartuta interesa erakutsi badu.

Oro har, Euskadiko Eskola Kontseiluaren iritzian, hezkuntza sisteman eta, beraz, euskal gizarteko bizitzan lortutako euskalduntze maila sendotzeko eta hobetzeko, eskari hauek behar duten adinako aurrekontu ahalegina irauarazi behar da.

Azken urteotan eztabaidagai izan da lan kontratua izanda irakaskuntzaz kanpoko ardura duten sektoreko irakasleei eskatu behar zaien euskarazko gaitasun maila zehaztea, hau da, hain zuzen ere, Hezkuntza Bereziko lan kontratadun pertsonalaren kasua. Hasiera batean, berariazko hizkuntza eskakizun bat zehaztu zen haientzat (Hezkuntza Bereziko *Euskadiko Eskola Kontseilua*. Laguntzaileen Euskara Maila - HBLEM), baina jurisdikzioko organo eskudunak ez zuen onartu haren legezkotasuna, eta irakasleen HE1 eta HE2 hizkuntza eskakizunak aplikatu zitzaizkien, ondoren hauen kontrako beste helegite bat jarri eta hau ere onartua izan zen, eta azkenik, hizkuntza eskakizun bi zehaztu dira: HE1 eta kolektibo honentzat berariazko beste bat (Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria - HLEA), bata edo bestea egindako lanaren arabera aplikatzen direla. Azken erregulazio honetan, Kontseiluak adierazi zuen ez zela komeni irakaskuntzako hizkuntza eskakizunetara jotzea, HLEA maila desberdin bi sortu beharrean. Honelako gorabeherek eta koherentziarik ezak segurtasun juridikorik eza ekarri dute ukitutako langileen kolektiboarentzat eta zailtasunak Irale programaren beharrak planifikatzerakoan.

Nolanahi den ere, gure iritzian garrantzitsua da lan orduetan ikastaroak egiteko aukera zabaltzea, kasuan kasuko liberazioa finantzaturik, gaur egun aukera hori ez duten ikastetxeetako beste langile batzuentzat: irakasle ez diren langileak, haur hezkuntzako langileak..., gaur egun irakasleentzat zehazten diren baldintza berdinetan.

R ikastaroei dagokienez, aipatua dugu dagoeneko bigarren hiru hilekoko iraupena kalkulatzeko akatsak daudela: urtarrilean hasi eta aste santura bitartean egin behar badira ez dira zehaztutako 365 orduetara iritsiko, non ez diren eguneko irakastordua gehitzen edo beste formula bat gauzatzen, azken ikasturte honetan, aldea oso handia izan da.

Beste alde batetik, gure iritzian, R600 ikastaroak, curriculumaren euskal dimentsioari buruzkoak, ez dira euskalduntze programetako berariazko gaia eta, beraz, ez lirateke IRALeren kupoaren barnean kontatu behar, baizik eta Hezkuntza Berritzatzeko prestakuntza programen barnean.

Irale programaren antolakuntza hobetze aldera, epe laburrean, Euskadiko Eskola Kontseiluak interesgarri deritzo Euskara Zerbitzuaren ekimenari, alegia, irakasleak

euskalduntzearen inguruko erregulazio guztia, gaur egun sakabanatua, arau bakarrean bat egitea.

Etorkizunera begira, definitzeko dago Iralek eman beharreko zerbitzu eredu berria. Eskariari hobeki erantzun nahi bazaio, Iraleko irakasleen espezializazioa, irakasleak euskarazko praktika didaktiko profesionalean hobeki trebatzera zuzendu beharko da, eta aldi berean, haien hizkuntza gaitasuna erregistro guztietan hobetzera. Baina, zalantzarik gabe, egindako ebaluazioko emaitzetatik eta zerbitzuburuaren orientabideetatik ondorioztatzen denez, irakasteko gaitasuna hobetzera orientatua den irakasteko eta ikasteko modu hau gauzatzeko, Iraleren oinarrizko helburuak berriz bideratu behar dira mailaz maila, eta beraz, bitartekoak eta baliabideak ere egokitu behar dira, baliotsuenetatik hasita, giza baliabideetatik, alegia.

Ikasketari bakoitzaren ekoizpen aktiboa ardatz duen ikuspegia indartuko bada, Iraleko irakasleek gaituta egon beharko dute aipatutako ekoizpen aktiboa sustatzeko, xede horretarako irakaste-ikaste egoerak planteiatu eta baliabideak erabili behar dira ikasketariak beren ohiko laneko hizkuntza jarduerarekin lotzeko eta beren eguneroko hizkuntza erregistroak prestakuntza ekintzara ekarri —edo honetatik behatu eta aztertze— eta hobetzeko. Egungo prestakuntza ekintzen formatua (ikastaro luzeak, ikastaro laburrak) dibertsifikatu beharko da. Labur esanda, Irale Programaren eginkizunaren eremua era gradualean zabalduz joango da hezkuntza berriztatzeko eremura.

Iraleren gaiarekin amaitzeko, gure poza adierazi behar dugu ebaluazioan nabarmendu diren alde positiboengatik, hala nola autoebaluazio praktikagatik beragatik eta Kontseiluari informazioa emateko izan duen prestasunagatik.

- **2000-02 Txostena**

Irakasleak euskalduntzeko IRALE programa .

- ✓ Hezkuntza sistemaren euskalduntze beharrak ikasleak oro ukitzen ditu, bai hizkuntza gaitasunari dagokionean eta bai hizkuntza hobetzeari dagokionean ere: elkarren osagarriak dira bi jardunbide hauek.
- ✓ Hizkuntza gaitasuna lortzeko ohiko ikastaroak, urtebete dirautenak eta liberazioa dutenak (U modalitatea), atzerakada handia izan dute. Sare publikoan jaitsiera honek badu azalpen bat, hau da, H ERik ez daukaten irakasleen adina aurrera doa eta, beraz, Hizkuntza eskakizunak lortzeko errendimenduak gero eta apalagoak dira batetik, eta inbertsioaren errentagarritasuna bera kolokan jartzen du bestetik.
- ✓ Nolanahi den ere, adin faktoreak ez ditu osoki azaltzen errendimendu apal hauek, zeren eta euskararen hizkuntza gaitasuna lortzeko ematen den denbora oso luzea baita. Ez dugu etsi behar egoera honen azalpenen eta soluzioen bilaketan eta, aitzitik, aztertutakoen hizkuntza gaitasuna hobeki ebaluatzeko alderatu behar dira azken probaren emaitzak eta etengabeko ebaluazioarenak.
- ✓ Ordezkoen kolektiboari dagokionez, hauek aukera handiagoak izan behar dituzte IRALEk eskaintzen duen euskalduntzeari heltzeko. Ezin izan daiteke neurri unibertsala, baina bai sisteman beren balioa erakutsi dutenentzat, nahiz eta bertara ezin izan diren egonkorki sartu, azkeneko urteetako Lan Eskaintza Publikoen faltagatik. Hartara, gomendagarria da IRALE zabaldu ahal izatea Bitarteko irakasleei baldin Hizkuntza Eskakizunen Dekretua indarrean jarri baino lehen sartu baziren

ordezkapen zerrendetan edo geroztik sartu arren hiru urteko antzinatasuna frogatu eta liberatuak izan daitezkeen ikasturterako postu huts bat badute, hori bai, interesa erakutsi badu euskara ikasteko bestelako ikastaro batzuetan parte hartuta.

- ✓ Sare pribatuan, berriz, batetik, euskaran hizkuntza gaitasuna duten irakasleen proportzioa txikiagoa da, eta bestetik, eredu bilakaera potentziala ere handiagoa da, gauzak horrela, irakaslea liberatuta dagoen urteko ikastaro hauen eskariak handiago izan behar luke, are gehiago kontuan hartzen badugu asko gehitu direla ikastetxeek ordezeko irakasleak kontrata ditzaten diru laguntzak. Ezin onar daiteke, beste alde batetik, euskara ez dakiten pertsonak kontratatzea.
- ✓ HE2 duten irakasleen espezializaziorako R ikastaroek hazkunde potentzial handia dute, eskariaren eta eskaintzaren zenbakiak konparatzerakoan frogatzen denez. Ildo honetatik, ikastaro luzeen bitarteko euskalduntze beharrak beterik badaude, orduan beraiei lehen ematen zitzaizkien aurrekontuak hobekuntza ikastaro berrien eskariari estaldura handiagoa ematera igaro behar luke.
- ✓ R ikastaro hauetako curriculumean bilakaera bat izan dela ageri da. Izan ere, hasiera batean curriculumeko espezialitateak irakasteko prestakuntza teknikoa ematera orientatzen ziren gehienbat, baina denbora joan ahala, hizkuntza gaitasunaren hobekuntza orokorrari eman zaio lehentasuna, eta hau ere bat dator IRALEko irakasleen prestakuntzarekin.

- **1994-2000 Txostena**

Irakasleen euskalduntzeari buruz.

1994-2000. urtea bitartean nabarmen hazi da IRALEko kupoa eta Gipuzkoako sare publikoko ia irakasle guztiek 2. HE lortua dutela ikusi da. Badirudi urte batzuk barru Bizkaian egoera berbera biziko dela eta Araban urte batzuk gehixeago beharko direla egoera horretara iristeko. Bestalde, hazi egin da eguneratze ikastaroen eskaera, bai ikastaro orokorrena, bai espezialitateetan oinarritzen direnena.

Orain arte ez da baloratu euskalduntze planen erritmo eta prozesuek zer-nolako eragina izan duten euskal hezkuntza sisteman. Eta egin bada, ez da plazaratu. Hogei urtez irakasleen euskalduntzean eta euskal hezkuntza sisteman lan handia egin ondoren, badirudi une aproposa dela IRALE programaren azterketa sakona egiteko, hau da, programaren egitura eta eskaera berriak aztertu behar dira eta, ondorioz, beharizan berriak kontuan izanik, programa nola berregituratu behar den ikusi behar da. Euskadiko Eskola Kontseiluak ebaluazio hori astiro eta objetiboki egin behar dela uste du, betiere euskal gizarteak aukeratu duen hezkuntza sistema elebidunaren hobekuntza helburu izanik.

Ahalegin handia egin da ikastetxeetako irakasle eta irakasle ez diren langileak euskalduntzeko IRALE Programaren, Hizkuntz Normalizaziorako proiektuen, NOLEGA programen eta abarren bidez. Balorazioa positiboa da, ahalegin handi horren ondorioz, 20 urtetan, irakasleen hizkuntz titulazioaren tasa %13tik (1977) %70era (2000) igaro baita. Kopuru horiek, bere hotzean, ez dute erakusten Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak aurrekontuetan eta kudeaketan egin duen ahalegina, ezta irakasleek eta irakasle ez diren langileek egin dutena ere. Kolektibo horretako kide

askok uste du ez zaiela ahalegin hori aintzat hartu, ikastetxeetan tentsio eta eragozpen handiak sortu baitira ahalegin hori egin beharraren ondorioz. Euskadiko Eskola Kontseiluak ahalegin hori aintzat hartzeko eskatzen du.

Nabarmen hazi da 2. HE egiaztatu duten irakasleen kopurua. Nolanahi ere, datuen arabera, hizkuntzaren alorreko prestakuntza eta birziklapen ikastaro gehiago eskatzen dituzte. Irakasle batzuek onartzen dute beren irakaskuntza kalitatea lehen eskaintzen zutena baino askoz kaskarragoa dela, nahiz eta dagokien hizkuntz eskakizunaren egiaztagiria izan. Hezkuntza Administrazioak ikerketa bat egin beharko luke euskalduntze prozesuak irakaskuntzaren kalitatean duen eragina aztertzeko; era berean, dotazio eta ikastaro gehiago eskaini beharko lituzke beren plazari dagokion hizkuntz eskakizuna egiaztatu duten irakasleen gaitasuna hobetzeko.

Hizkuntz eskakizunen salbuespen sistema ez da oraindik definitu eta, beraz, ez dakigu seguru zein egoeratan geratzen diren 1993ko hizkuntz eskakizunen Dekretuko aukera honetaz baliatu nahi duten langileak. Dekretuaren aplikazio praktikoa aldatu egin da lurralde eta une edo momentuen arabera. Euskadiko Eskola Kontseiluak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskatzen dio araudi zehatz eta finko bat presta dezala Euskal Eskola Publikoaren Legeak eta Euskal Funtzio Publikoaren Legeak onartu dituzten hizkuntz eskakizunen salbuespen baldintzak finkatzeko, horrela, aukera hori erabili nahi duten langileek marko erkide eta zehatza izango dute.

Premiazkoa da hitzartutako hezkuntza pribatuaren sektoreko langileak eta hezkuntza publikokoak parekatzea ondokoetan: birziklapen ikastaroetara sartzeko baldintzak, prestakuntza, euskalduntzea...; horrela bakarrik segurtatuko baita aukeren berdintasuna.

- **1990-01 eta 1991-02 Txostena**

Sare publikoan irakaslegoak ahalegin handiak egin ditu eta egiten ari da euskaraz behar adinako gaitasuna lortzeko eta Administrazioak ere aurrekontu-zuzkidura behar bezainbatean gehitzeko. Aitzitik, sare pribatuko egoerak Hezkuntza Administrazioa eta ikastetxeetako titularren arteko konpromisoa behar du arlo honetan aurrera egiteko. Hurrengo kapituluan aipatutako den Akordio Politikoak konpromiso honen gauzapena suposatzen da Administrazioaren aldetik; titularrek arlo honetan gauzatu beharreko konpromisoa ezagutzea geratzen da orain.

Hezkuntza Administrazioal ezin du bistatik galdu B eta D eruedetan gertatzen ari den gehikuntza nabaria. Eredu horietakoa eskolaketari erantzun ahal izateko behar diren irakasle elebidunak aurrikusi behar ditu eta oraingo irakaslegoaren egokitzapena burutu, beharrezko izanez gero.

Kontseilu honek premiatsutzat dauka irakaslegoaren hizkuntza prestakuntzaren edukinak eta sekuentziazioa zehazteko lanak bukatzea eta jarritako programazioa ebaluatu eta birdoitzeko aldizkako mekanismoak ezartzea.

Hezkuntza Administrazioak dauden baliabideen razionalizazioa egin behar du irakaslegoaren hizkuntza egokitzapenerako zuzkidurak errentagarri bihurtzeko.

Jeneralean uste da Sailaren beraren euskaltegietan emandako prestakuntza irakasleei hobeto moldatua dela. Horregatik IRALEko ikasketari gustiei prestakuntza Sailaren beraren ikastegietan ematera jo behar da, honek poliki poliki haien kopuru eta edukiera handiagotzea inplikatzeko duela. Irakasle guztiari aipatu ikastegietan erantzuten ez zaion bitartean, hobetu egin behar da haietan egin beharrean euskaltegietan buruturiko lana. Ikastegi bakoitzarekin egindako hitzarmemotan jarritako edukinen zerrenda zehaztu ondoren, egindako ikasketa-plana betetzera eta lortutako emaitzak ebaluatzen konprometatu daitezkeen esijitu behar zaie.

Kontseilu honek nabarmendu nahi du Hezkuntza Administrazioako pertsonal ez-irakaslearen hizkuntza trebakuntzak duen garantzia benetan elebiduna izango den sistema ezartzeko prozesuan jokaera erabakitsua bultzatzeko.

2006ko urria